

# Ameriketako Ametsa

Ken Walibora , Manu Ormazabal

manuorm@yahoo.es

## Abstract

This story published in 2001 won the 2003 Jomo Kenyatta Prize organized by the Kenya Publishers Association. Issa, a Kenyan village boy, tells us the story of his life. "Itxoin eta egingo duk amets Amerikarekin. Orduan prest egongo haiz harantz abiatzeko" ('Wait and you'll dream of America. Then you'll be ready to go. '), his friend told him. And Issa will have that dream. In Nairobi the two of them, together with a third "friend, will make plans for America. There will be lessons to learn from their adventures.

## Laburpena

2001ean argitaratutako ipuin honek Kenyako Editoreen Elkarteak antolatutako Jomo Kenyatta saria irabazi zuen 2003an. Kenyako herrixka batean bizi den Issa izeneko mutikoak bere bizitza kontatuko digu. "Itxoin eta egingo duk amets Amerikarekin. Orduan prest egongo haiz harantz abiatzeko" esango dio bere adiskideak. Eta egin ere egingo du amets hori. Plana prestatuko dute hirugarren "lagun" batekin, Nairobin. Hango ibili afontutsuan izango du zer ikasirik.

**Keywords:** dream, story, Swahili

**Gako hitzak:** ametsa, ipuina, swahili

## 0. Sarrera

Swahilia Niger-Kongo familiako hizkuntza bantua da, Swahili herriarena, Somaliako hegoaldeko Mozambikeko iparralderaino, Komoreak barne, hitz egiten dena. Arabieraren eta pertsieraren eragina izan du, eta azken mendeetan ingelesarena eta alemanarena ere bai. Edozelan ere, eragin hori lexikora mugatu da gehienbat. Gramatika erabat bantua du, lexiko gehiena ere bai. 5-10 milioi lagunena ama-hizkuntza da, baina hizkuntza franko moduan erabiltzen dute Afrikako ekialdean. Afrikako Batasuneko afrikar hizkuntza ofizial bakarra da. 120 milioitik gora hiztun ditu gaur egun, lehenengo edo bigarren hizkuntza moduan.

Herri swahiliaren Kenyako iparraldetik hegoalderanzko migrazioek eroan zuten hizkuntza gaur egungo Kenyara, Tanzaniara, Malawira eta Mozambikera. Afrikako erdialdera bideratutako merkataritzak, berriz, Zaire, Uganda, Kongo, Burundi, Rwanda eta Afrika Erdiko Errepublikara. Alemaniarrak gaur egungo Tanzanian izan zirenean bultzada handia eman zioten. Alemaniarrak agintariek eta misiolari kristauek swahilia aukeratu zuten jatorrizko biztanleekin harremanetan jartzeko, eta lagungarri gertatu zen hizkuntza hedatzeko.

Hizkuntza ofiziala da Tanzanian, Kenyan eta Ugandan. Kongoko Errepublika Demokratikoan, berriz, hizkuntza nazionala.

## 0.1. Literatura

Swahilizko literatura idatzia 1652an hasi zen *Hamziya* izeneko arabiar poemaren itzulpenarekin. Alfabeto arabiarrez dago idatzita eta hizkuntza horren eragin handia du; ahozko tradizioan dago oinarrituta. Garrantziko lan poetikoak dira Bwana Mwenzo-ren 1728ko *Utendi wa Tambuka* (Tambukaren Historia) eta *Utenzi wa Shufaka* (Errukiaren poema) (anonimoa), biak hala biak alfabeto arabiarrez idatziak.

Garrantziko lehenengo eleberria hizkuntzaren estandarizazio-garaikoa da, 1934koa hain zuzen, James Mbotela-ren *Uhuru wa Watumwa* (Askatasuna esklaboentzat).

Idazle aipagarriak dira oraintsuko literaturan Shaaban Robert (Tanzania 1909-1962), Muhammed Said Abdulla (Zanzibar 1918) edota Euphrase Kezilahabi (Tanzania 1944).

Gazteagoen artean, berriz, Elieshi Lema (Tanzania), Mlinge Fanuel Mgendi (Tanzania), Enock Bitugi (Tanzania) edo Ken Walibora (Kenya).

Kennedy Waliaula (1948) idazlearen ezizena da Ken Walibora. Afrikako Hizkuntzen eta Literaturaren Fakultateko irakaslea da Wisconsin-Madisonen Unibertsitatean. Bere idazlan gehienak umeentzako eta gazteentzako literaturaren arlokoak dira. Aipagarrienak: *Siku njema* (Egun ona) (1996), *Damu Nyeusi na hadithi nyingine* (odol beltza eta beste ipuin batzuk ) (2007), *Kisasi hapana* (Mendekurik ez) (2008) edota *Ndoto ya Amerika* (Ameriketako ametsa) (2001).

## 1. kapitulua<sup>1</sup>

Isaya Yano dut izena. Amak Isaya esaten dit. Baina lagunek Isaya deitzen didate, laburtuta. Lagunek deitzen didaten bezala gustatzen zait niri. Sangura da nire herria. Cherangani eskualdean dago, Trans-Nzoia barrutian.

Oso txikia nintzela aita gaixotu eta hil egin zitzaidan. Amarekin bizi izan naiz harrezkero. Gogoan dut zenbaitetan gorrotatu egiten nuela etxeko giroa. Ez gara aberatsak. Gure etxeak lurrezko hormak ditu, zirkulu-formakoak, eta lastozko teilatua. Swahilizko irakasleak esplikatu zidan behin, horrelako etxeei *nyumba ya msonge*<sup>2</sup> deitzen zaiela. Etxe barrutik zeruan biltzen diren hodeiak ikus daitezke, sabaiko zulo tartetik. Euria denean, berriz, ura sartzen zaigu zulo horretatik.

Gau euritsuetan ama eta biok hara-hona ibiltzen gara etxe barruan euriak busti ez duen txokoren baten bila.

Gure baratzea txikia da sano. Hainbat landareren artean, artoak, indabak, artatxikiak, eta barazkiak ditu ereinda amak. Gero, saldu egiten ditu Sangurako azokan. Batzuetan amak zartakoak ematen zizkidan baratzean lanean lagundu nahi ez nionean. Areago gorrotatzen nuen orduan etxea.

Gorrotoa nion eskolari ere. Bakarrik pozten nintzen oporrak, jolastorduak, kirol txapelketak edo jai nazionala zenean; garbi esanda, eskolarik ez geneukanean.

Lagun handia nuen Madoa. Eskolan Baiorixe deitzen genion, gustuko zuelako "bai, horixe" esanda amaitzea hizketaldiak. Amak, ordea, ez zuen gustukoa Madoaren portaera. Uste dut horregatik eman zidala harekin ez ibiltzeko agindua.

Madoak ere gorrotatzen zuen bere ama. Amarekin bizi zen hura ere Sangura herrian. Haien baratzea gurea baino zabalagoa zen. Baina haiek ere ez ziren aberatsak. Madoaren aita lehoinabar batek erasota hil zen, Elgon mendiko basoan zuhaitzak mozten zebilela. Haren amak bananak, ogia eta samosak saltzen zituen Sangurako azokan.

Ikasgela berean genbiltzan Madoa eta biok, baina Madoa ez zen egunero etortzen eskolara. Ez zitzaion gustatzen estudiatzea. Gainera, ez zuen ezer ulertzen eskolan. Nik hark baino gehixeago. Madoari galdetuz gero, "zenbat da bat eta bat?" "bost" erantzungo zizun kolpetik. Batzuetan piper egiten zuen inork ez zekien lekuren batera alde egiteko. Egun mordoxka igarotzen ziren haren berririk inork jakin gabe.

- Non izan haiz Baiorixe? - galdetzen nion Sangurara itzultzen zen bakoitzean.

- Nairobin- erantzun ohi zidan.

- Nairobin izan al haiz?

- Bai, horixe!.

Kisumu, Eldoret, Nakuru, Mombasa eta Kenyako beste hiri handi batzuk ere aipatzen zituen eta haietan egona zela zioen.

- Sekula ez itzultzeko alde egingo diat noizbait- bota zidan behin eskolatik irteetan.

- Nora joango haiz, ba?- itaundu nion.

- Amerikara- erantzun zidan.

- Ameriketara joan nahi duk?"- nik harriturik.

- Ez, Amerikara, ez duk entzun ala?.

- Bai, entzun diat, motel- nire erantzuna.

Eta berak haserre:

- Orduan, ez duk ententitu?

- Ameriketara hoala esan duk, ez?

- Amerikara esan diat- Madoak.

- Amerikara edo Ameriketara gauza bera duk. Ez al daukaku buruan maisuak herenegun azaldutakoa?- gogorarazi nion.

- Alukeriak!- berriro haserre- Ez egidak aipatu maisu konturik. Nazka-nazka eginda naukatek. Bai, nazkatuta naukatek maisuek eta Sangurako bizimoduak. Nazkatuta ikasketek eta nazkatuta etxeok. Ez diat zartakorik jasan nahi txitean-pitean. Ez diat lanik egin nahi etxean.

Gogora ekarri nizkion geografiako maisuak, James Njoroge jaunak, Amerikari buruz irakatsi zizkigunak. Atlantiko izeneko itsasoa zeharkatu behar zela. Itsaso zabal-zabala. Oso urruti dagoena Kenyatik. Airez edo itsasoz joan ohi dela jendea Ameriketara.

Lagunarengana jiratu eta galdera hau egin nion:

- Baina, nola joango haiz Ameriketara Madoa? Lekutan zegok hura!.

- Nik bazekiat zelan joan- izan zen Madoaren erantzuerak- gehiago lortzen dik nahi duenak ahal duenak baino. Adiskide bat zeukat lagunduko didana.

Ondoren, bere lagunaren gaineko xehetasunak eman zizkidan Madoak. Mwamba deitzen ziotela. Nairobin batzen zirela. Ez zela gu bezalako umea. Gizon heldua zela, mundu guztian ibilia. Hizkuntza asko zekizkiela: ingelesa, alemana, indiera eta arabiera. Hemengo zenbait mintzaira ere bai, masaia, kamba, kikuyua, luha eta beste batzuk.

- Mwambak egingo zidak Amerikara edo Amiketara edo dena delakora joateko plana- esan zidan Madoak.

Barre egin nuen ia matrailezurra minberatu arte.

Sumindu egin zitzaidan Madoa.

<sup>1</sup> Oharra: Ipuina orain aldiaren hasten da. Bigarren orrialdean, oster, lehenaldira pasatzen da eta horrela jarraitzen du ipuin osoak. Jatorrizko erabilera errespetatu da itzulpenean.

<sup>2</sup> Etxola, kono-formako teilatua duen txabola.

- Utziok barre egiteari behingoan!- oihukatu zidan.

- Nola nahi duk ez egitea barrerik, barregura heuk ematen didak eta. Ez duk Amiketara, Ameriketara baino. Amerikara esateko beste modu bat duk.

- Berdin ziok- erantzun zidan- hara heltzean Michael Monday edo Michael zernahi izango nauk.

Eskolan eta herri osoan Namasake Madoa edo Baiorixe izenetik ezagutzen genuen. Harritu egin ninduen izena aldatu nahi izanak.

- Zergatik aldatu behar duk izena?-galdetu nion.

- Izan ere, Amiketan...

- A-me-ri-ke-tan esan behar duk.

- Bai, horixe- jarraitu zuen Madoak- beharrezkoa duk izena aldatzea. Han denak dituk Michael edo, laburtuta, Mike. Hango presidentea Mike Tyson duk. Hezkuntzako ministroa Michael Jordan. Osasuneko Michael Jackson. Presidenteordea Michael Johnson.

- Utziok gezurak esateari, motel- esan nion Madoari.

Gizon guzti horiek kirolariak zirela argitu nion. Entzunak nituela haien izenak gure auzoko aitona Jomboren irratian. Haietako inork ez zuela kargurik Ameriketako gobernuan. Baina Madoak ez zuen bere errakuntza onartu gura. Haserre bizian jarri ohi zen oker zegoela genioenean.

- Baliteke oker egotea. Hala ere, ni Amerikara joango nauk. Zergatik ez hago prest amets egiteko Amerikarekin?

- Nola?

- Ez duk amets egiten Amerikarekin?.

- Oraingoz ez- aitortu nion.

Txundituta laga ninduen. Esan zidanez, Amerikarekin amets egiten ez banuen, akatsen bat neukan. Hemengo den-denek amets hori dutela. Berak egunero egiten zuela amets Amerikako bizimoduarekin.

- Itxoin eta egingo duk amets Amerikarekin. Orduan prest egongo haiz harantz abiatzeko.

Bakoitza bere aldetik joateko ginela aitona Zakayo Wekesa ikusi genuen bidean zetorrela. Makila eta poltsa zekartzan eskuan.

- *Shikamoo*<sup>3</sup> aitona- agurtu nuen maisuak irakatsitako swahiliz.

- *Mazuri kitoko* - erantzun zuen aitona Wekesak, ohiko *marahabaren* ordez. Negar-malkoak begietan. Ez zait laket pertsona helduak negarrez ikustea. Bihotza minberatzen zait zeharo.

- Zer duzu, aitona?- galdetu nion.

- Bungomara noa; emaztea hil zait- erantzun zidan aitona Wekesak.

Barkamena eskatu nion. Madoaren irribarreari erreparatu nion orduan. Ez dakit aitonaren swahili kaskarrari ala zeri zegoen barrezka. Elkar agurtu eta etxe aldera egin genuen.

## 2. kapitulua

Hainbat egun joan dira Madoarekin hizketaldi hura izan nuenetik eta zain nago noiz egingo amets Amerikarekin. Zenbat-nahi amets-klase izan dituk harrezkero. Behin amak zartakoak ematen zizkidala edo suge bat jaurtitzen zidala. Beste batean, hegazkin batera igotzeko zorian nengoen aurreneko aldiz nire bizitzan. Baina igo aurretik amaitu zitzaidan loa. Goizero saiatzen nintzen gaueko ametsak gogoratzen. Batzuetan erabat ahazten zitzaizkidan eta haserreak hartzen ninduen orduan. Baina nik espero nuen ametsa, Ameriketakoa, ez zen iristen.

Goiz batez eskolara joateko esnatu ninduean amak, negarrari eman nion:

- Zer duzu negarrez egoteko?

- Ez dut amets egiten Amerikarekin- erantzun nion negar-antuluak ura bezala ateratzen zitzaizkidan bitartean.

- Erotu egin al zara?

- Madoak kontatu zidan mundu guztiak egiten duela amets Amerikarekin.

- Madarikatuta al zaude umea?- errieta egin zidan amak haserre bizian- Esan nizun ez dudala nahi Madoarekin ibil zaitezen, izaera makurrekoa delako. Entzun? Hasi zara berriro harekin ibiltzen, ezta?

Gero zartakoak ematen hasi zitzaidan inoiz ez bezalako amorruez. Jauzi egin nuen bat-batean eta aterantz abiatu. Beste zartako bat ematear zegoela atea zabaldu eta ospa egin nuen. "Eta orain zer?".

- Isaya! Geldi hor!- agindu zidan- arazo bila dabilenak aurkitu egiten dituela!.

Inoiz ez nion amari irabazi korrika egiten. Banekien agudo harrapatuko ninduela. Uste dut gazterik ezkondu ez balitz, Kenya ordezkaturko zuela joko olinpikoetan. Atzera begiratu nuen urreratzen zitzaidan ikusteko. Indartsu ekin nion berriro korrika egiteari. Danbateko itzela entzun nuen ustekabeen nire atzean. Ondoren, aien ozena. Jiratzean han zegoen ama behegainean erorita.

Zerbaitek jausarazi zuen. Ez nuen jakin nahi zerk. Abiadan jarraitu nuen. Gure artatzen sartu, gure baratzearen eta beste baratze batzuen mugak zeharkatu eta Sangurako basora ailegatu nintzen. Sarritan etortzen ginen hona Madoa eta beste gazte batzuk txoriak harrapatuz. Sano nekatuta nengoen. Mela-mela eginda, goizeko ihintzetan etzan banintz bezala. Arantzak neuzkan oinetan sartuta. Gure herrian ez da

<sup>3</sup> "Kaixo", pertsona nagusiak agurtzeko hitza. Gazteak agurtzeko hitza "*marahaba*" da.

harritzekoa jendea arantzekin zauritzea. Jendez gainezka doan *matatua* ikustea bezain ohikoa da. Akazia deritzon zuhaitzak izan ohi ditu arantza ugari. Akazia horietako baten azpian esertzea deliberatu nuen eta oinetan sartuta neuzkanak atera nituen beste arantza gogorrago bat erabilita.

Ama neukan gogoan etengabe. Zergatik jo nahi ote ninduen arrazoirik gabe? Alde egingo dut etxetik kosta ahala kosta. Norabait joango naiz, bertan bizitzeko beharbada. Madoaren esana datorkit burura: "sekula ez itzultzeko alde egingo diat noizbait". Madoari ere zartakoak ematen dizkio amak maiz. Hori da Madoak ihes egitearen arrazoa. Oraingoan Ameriketaraino. Harrituta nago Madoari bere amak nirekin irtetea debekatu izanagatik, nire portaera gaiztoa kaltegarri gerta dakiokela eta. Hortaz, neu ere ez naiz bueltatuko etxera. Ezta eskolara ere. Ameriketara joango naiz Madoarekin. Herrialde horretaz kontatu zizkidan gauza politetan ari nintzen pentsatzen. Horretan nengoela logura sartu zitzaidan eta ametsetan hasi...

Auto bikain bat gidatzen nindoan. Gure parlamentarienak bezalakoa. Auto beltza. Madoa nire aldamenean zihoan eserita. Auto pila zebilen bidean, gaueko zeruko izarrak adina.

- Non gaudek?. galdetu nion Madoari.

- Kairo duk hau- erantzuna.

- Ez diat uste Kairo denik. Ez ahaztu orain Ameriketara gaudela. Kairo Egiptoko hiriburua duk, eta hori Afrikan zegoen.

- Hik beti dakik dena. Zergatik galdetzen duk dakiana?- Madoak pipertuta.

Aurrez aurre etxe handi bat geneukan, "New York" zeukana idatzita. New Yorken, Amerikan, geundela esplikatzen nion. Kartela irakur zezan gura nuen. Baina "bat eta bat" zenbat den ez dakienak nola arraio leitu behar du kartela?.

- Hi! geratu ezak autoa oraintxe bertan. Jaitsi egingo nauk. Ez diat bidaiatu nahi hi bezalako listoburu alu batekin!- are haserreago Madoa.

Atea irekitzen hasi zen autoa martxan zegoela. Itsumustuan frenatu nuen. Gurgil bat irten zitzaion autoari, txoriak bezala hegaz. Madoa autoaren botoi guztiak sakatzen hasi zen. Ondoren, gurgila bere lekura bueltatu zen berez.

Taberna handi batera sartu ginen autotik jaitsita. Barruan hainbat txorrota zeuden edariak ateratzeko: soda, tea, kafea eta bestelakoak. Txorrota bat irekitzean edaria ateratzen da erreka ura bezala. Nahi adina edan dezakezu. Janariak ere bazeuden, maneatu eta mahaira ateratzeko. Berez garbitzen eta lehortzen ziren platerak ere ikusi nituen.

- Madoa! hau bai erosotasuna eta plazera!

<sup>4</sup> "Matatu" 13-19 plaza dituen autobus txikia, garraio publikorako erabili ohi dena Kenyan.

- Etzaidak Madoa deitu.

- Zergatik ez? Ez haiz, ba, Namasake Madoa?

- Kenyan ninduan Madoa. Hemen, Michael Monday.

- Hi Michael Zernahi haiz, ez ala?- erantsi nion barrezka.

- Bai, horixe.

- Lo egin nahi nuela esan nionean Madoari, oheari deitzeko aholkatu zidan.

- Etorri ohea! - oihukatu orduko iritsi zen ohea.

Ikaraz esnatu nintzen. Akaziapen nengoen oraindik. Izerditan blai. Tira! halako batean egin dut amets Amerikarekin!. Neure bizitza guztian ez bezalako poza hartu nuen. Jaiki eta saltaka hasi nintzen pozaren pozez. Zoratuta nengoela esan zitekeen. Ez nuen eskolara, ez etxera joateko gogorik. Egun osoa eman nuen basoan.

### 3. Kapitulu

Arrats aldera Madoaren bila abiatu nintzen. Amerikarekin amets egin nuela kontatzeko irrikan. Haren etxetik hurbil nengoela abistu egin nion. Horrela egiten genion dei elkarri. Madoak ere abistu egiten zidan gure etxera urreratzen zenean eta ni bidera irteten nintzaion. Txistuka jarraitu nuen harik eta arnasa ahitu arte. Baina Madoa ez zen azaldu. "Sanguran izango duk edo, beharbada, Nairobiara edo beste norabait joana" nik neure artean.

Iluntzen hasi zen. Basora bueltatzea erabaki nuen. Kezka sartu zitzaidan txorien kantuak eta piztien oihuak bazter guztietan aditzean. Nahiago nuen baina, basoan geratu etxera itzuli baino.

Ilargi beteak argitzen zuen basoa. Gosetuta nengoen. Ezer jan barik neraman egun osoa. Hotz nintzen, gainera. Zuhaitz baten azpian belar hazia zegoela oharitu eta hantxe hartu nuen atsedean. Belar artean zegoen kolore beltzeko zerbaiti erreparatu nion. Sustrairen bat izan zitekeela pentsatu nuen hasieran. Urreratzean pertsona baten oina zela konturatu nintzen, zapatarik ez zuena jantzita. Bihotza taupada betean neukan. "Gorpua ote duk, ba?". Gaizkileek herritarrik hil eta haien gorpuak baso honetan uzten dituztela diote herrian. Adorea hartu nuen ilargiaren argitan zentuz aztertzen oin hura. Egur-puxka batekin ukitu nion behatz zikinean. Aiei!! mugitu zen oina. Tximistaren haizean zutitu zen hildako berpiztua zirudien norbait. Taketa baino artezago geratu nintzen, zurrun, gatzeko estatua bihurtu zen Loten emaztea legez. Oinez ibiltzen hasi zen mantso-mantso. Atzera jiratu zuen burua eta ni ikustean:

Aaah! heu haiz baina, Isa!

Madoaren ahotsa zen. Ondotxo ezagutzen nuen nik ahots hura. Isilik geratu ginen une batez.

- Baiorixe, zer egiten duk hik hemen? – izan zen nire galdera.

- Eta hik, Isa, zer egiten duk hik hemen? – nire galderari beste galdera batekin erantzunez- Isa, esaidak zergatik etorri haizen basora. Gaur ez haut ikusi eskolan eta.

- Amak arrazoirik gabe astindu naik- erantzun nion, ez baitiot dena orain esplikatatu nahi.

- Ama hauek gero eta okerrago zebiltzak -gaineratu zuen- maisuena ere demasekoa duk.

- Zer gertatu zaik, ba, gaur eskolan, Madoa?

- Maisu Njorogek zutik jartzeko agindu zidak eta gainerako ikasleen aurrean azaltzeko zeintzuk diren Tanzaniako, Ugandako, Somaliako, Etiopiako eta Sudango hiriburuak.

- Eta zer erantzun duk? – banekien baina, gauza bera dela Madoari galdera hori egitea eta itsuari bidea erakusteko eskatzea.

- Ba...Nakuru, Mombasa, Kitale, Naivasha eta Nyeri.

- Ezin izan nion barreari eutsi.

- Ixo! Barre gehiagorik ez! – mehatxatu ninduen.

- Tanzaniako hiriburua Dodoma duk, Ugandakoa Kanpala, Somaliakoa Muqdisho, Etiopiakoa Adiss Abeba eta Sud...

- Ez diat jakin nahi!- Madoak haserre- Nik une honetan nahi dudana gauza bakarra Amiketara joatea duk!.

- Ameriketara esan nahi duk?

- Eehh! deitu egiok nahi duan bezala, nik hara joan nahi diat!.

- Hortaz, elkarrekin joango gaituk- nik inuzente-inuzente.

- Ez!. Ezin nauk joan lotsagarri utzi gura nauen batekin!.

- Nik lotsagarri utzi?- itaundu nion.

- Bai, horixe.

Gero maisu Njorogek jolaslekuari hamar itzuli ematera zigortu zuela azaldu zidan Madoak. Eta zigorra bete beharrean bere etxera egin zuela alde. Amak ikustean zartakoak eman zizkiola eta basoan bilatu zuela babesa. Orduantxe erabaki zuela zinez Kenyatik Amerikara edo Ameriketara irtetea.

Bihotza lehertu zitzaidan ez nintzela berarekin joango bota zidanean.

- Baiorixe, hi ez haiz nire laguna! – oldartu nintzaion negar-malkoak nituela begietan.

- Zergatik diok hori?

- Zergatik ez duk nahi hirekin joan nadin Ameriketara?.

Eta jarraian, akazia handiaren azpian izandako ametsaren berri eman nion. Poza hartu zuen Amerikarekin amets egitea lortu nuela jakitean eta berriro nirekin zegoela igarri nion. Badaezpada ez nion kontatu nire ametsen ez zekiela irakurtzen “New York” jartzen zuen kartela. Gero, berriro galdetzean berarekin joan nintekeen, “bai, horixe” erantzun zidan.

- Noiz joango gaituk, bada?

Isildu egin zen une batez. Ondoren, honela mintzatu zitzaidan:

- Ez diat sosik patrikan. Ez nagok prest hain bidaia luzerako. Nairobira heldu behar duk aurrena, eta lau mila kilometrotik gora zegoek hemendik Nairobira.

- Laurehun kilometro zeudek, motel- zuzendu nion.

- Nor duk Nairobin egonekoa, hi ala ni?- Madoak, atzera ere suminduta.

- Lau mila esan nahi nian!- ozenki nik, nahiz eta jakin ez zela horrela. Ez nuen zapuztu nahi Ameriketara joateko parada.

- Gainera, kilometro batera egonda ere- jarraitu zuen Madoak-lehenengo Nairobira heldu beharra zegoek, ulertu? Hara iritsitakoan Mwamba bilatu eta hark antolatuko ziguk Ameriketarako bidaia.

Isilik geratu zen Madoa luze samar, pentsakor. Gero, ziplo zutitu eta jarraitzeko agindu zidan. Ilargi beteak gaua egun bihurtzeko adina indarrez argizatzen zigun bidea. Ez zegoen hodei-izpirik zeruan. Basoan sartu ginen Madoa aurretik zela. Ez zidan jakinarazi norantz gindoazen. Basoaren azken mugan etxe bat zegoen, aitona Zakayo Wekesarena. Bakarrik bizi zen han gizona. Baratze txikia zuen. Haren emaztea hil zenean ama eta biok bisita egin genion. Orduan ikusi nuen gorpu bat lehenengoz neure bizitzan. Beldurra sartu zitzaidan. Ez nuen lorik egin zenbait egunetan. Bi seme ditu Wekesak. Nairobin egiten dute lan. Herrian denek dakite tarteka dirua bidaltzen diotela handik.

- Ez duk Bungomatik itzuliko harik eta dolualdia bukatu arte- adierazi zidan Madoak.

- Eta?

- Etzak galdera gehiagorik egin!.

Berari atzetik segitzeko agindu zidan aitona Wekesaren etxera hurbildu arte. Astiro-astiro iritsi ginen txabolaren atzealdera. Leiho txiki bat zeukan. Isil-isilik geunden. Laguntzeko esan zidan ahapetik. Makurtu egin nintzen, Madoa nire sorbalda gainera igotzeko. Goraka bultzatu nuen pixkanaka luzatuta. Eskuarekin iritsi zen leihora. Ireki egin zuen. “Geldi hor neu itzuli arte” ahapetik berriz. Sartu egin zen etxolara. Bazterrak arakutzen zebilela sentitu nuen kanpotik. Zerbait, ez dakit zer, zabaltzen eta ixten. Ez bat ez bi itzuli zen leihora eta gertu egoteko agindu zidan. Nire

sorbaldak ganean jarrita jaitsi zen. Kolpe jostaria eman zidan bizkarrean:

- Listo?- galdetu nion.
- Bai, horixe.
- Lapurretan egin al duk?
- Hik ez al duk Amerikara joan nahi?- Madoak

Kezkatuta nengoen. Oso noizbehinka lapurtzen nizkion amari ortuariak lapikotik edo bizpahiru txelin, baina ez zait egundaino otu besterik ostea.

- Aitona Wekesari ostu diok? – galdetu nion.
- Ezer gutxi, motel.
- Ezer gutxi?- nik
- Dena lapurtu zioagu- Madoak
- Nork irakatsi dik hori dena?

- Mwambak, nire adiskide Rock Mwambak. Honelako asko egin dizkiagu elkarrekin.

Beldurra ematen dit Mwambarekin batzeak baina irrikan nago hala ere.

#### 4. kapitulua

Gauetz irten ginen herritik oinez. Argia urratzean heldu ginen Ziwayo azokara Uasin Gishu barrutian. Aitona Wekesari ebatsitako dirua ari zen kontatzen Madoa. Esan zidan berrehun eta hogeita hamar txelin zirela. Baina badakit ez dakiela kontatzen. Billeteak eta txanponak hartu nizkion neuk kontatzeko. Bi mila eta hirurehun txelin ziren lapurtutakoak. Han, Ziwan, tea edan genuen galletekin tabernazulo zikin batean. Euliz josia zegoen. Gero, jendez gainezka zihoan *matatu* bat hartu genuen. Bidaiari batzuk kanpoaldera eskegita zihoazen, bananak bananondoan bezala.

Eldoret hirira eramane gintuen *matatu* hark. Sekula ikusi gabe neukan halako hiririk. Gure herritik, Cheranganitik hurbil dagoen Kitale hirira baino ez naiz ailegatu. "Eldoret Express" konpainiako autobus bat hartu genuen.

- Nora zoazte mutilok?- galdetu zigun txoferrak.
- Nairobi- Madoak.
- Baduzue dirurik?- txoferrak
- Bai, horixe.

Hasia zen gure bidaia. Nakuru, Gilgil eta Naivasha hiriak pasatu genituen. Gauetz iritsi ginen Nairobi. Durdituta nengoen erabat. Ez nekien zer neukan aurrean, ez atzean. Kikilduta zeharo.

Gainera jausiko zitzaizkigula ziruditen etxe luzeak zeuden. Akaziapen amestutako Amerika gogoratu nuen. Autoak inurriak bezala. Ezin konta ahalakoak ziren hara-hona zebiltzan gizakiak. Txua botatzeko lekurik ere ez zegoen. Era guztietako jendea: zuriak, afrikarrak, arabiarak, indiarak, handiak, txikiak,

aberatsak, pobreak, umeak zein helduak. Ezin nuen asmatu nola topatu behar genuen Mwamba, pertsona bat, Nairobiako jende-zurrumbilo hartan. Gure baratzean orratza aurkitzea bezain zaila izango zitzaigun Mwambarekin biltzea. Madoak gidatuta ailegatu ginen Burmako azokara. Kez estalitako taberna batera sartu ginen *ugalia*<sup>5</sup> barrukiekin jatera. Hango euliek gurekin batera afaldu zuten, Ziwan baino gehiago zeuden eta. Asaskatu arte jan genuen. Afalostean, matatu bat hartu eta Nairobiako mendebalderantz abiatu ginen. Solairu askoko etxeak zeuden kaleen alboetan, baina ez erdialdekoak bezain politak.

- Non gaudek?- galdetu nion.

- Kayole auzoan- erantzun zidan Madoak- hemen bizi duk Mwamba.

Solairuetako etxe batean sartu ginen. Ate batean jo zuen Madoak. Begirada zorrotzeko ume irribarretsu baten argazkia zegoen ate beltzean.

- Nor da?- galdetu zuen ahots batek barrutik.

Txundituta laga ninduen Madoak "neu naiz, Ninja" erantzun zuenean.

Orduantxe jakin nuen beste izen bat ere bazuela. "Laneko" izena zela argitu zidan gero.

- Ninja eta zer gehiago? - barruko ahotsak berriro.

- Ninja, Cheranganikoa.

Atea zabaldu zen. Gizon beltz handi bat atera zitzaigun. Ohituta nago beltzak ikusten, baina ez hura bezain beltzak, ikatza bezalakoak. Betaurrekoak zituen, jertse gorria eta praka beltzak. Ile kirru-kirrua.

- Ongi etorri. Sartu barrura.

Ahots arrunt lodia zeukan. Uste dut etxeako hormak ere dardarka jartzen zirela hitz egiten zuenean. Gela bi zeuzkan etxeak. Mahai ganean zeuden gauzen artean nortasun-agiriak ikusi nituen. Eseri egin ginen.

- Zer berri, aspaldiko Ninja?

- Hementxe, ba.

- Nor duk hori? - galdetu zion Madoari, atzamarrak seinalatzen ninduen bitartean.

Danborraren antzean kolpatzen ninduen bihotzak barrutik.

- Isa duk, nire laguna. Isa Yano. Elkarrekin joan gura dugu Amerikara.

Gizon hark irribarre beldurgarria egin zuen eta ondoren:

- Rock Mwamba naiz. Ninja nire lagun mina da. Esadazue zer jan nahi duzuen.

<sup>5</sup> "Ugali" Afrika ekialdeko janaria, arto-irinez egindako orea.

Bere gonbidatu guztiek jan edo edan egin behar dutela esan zuen Rock Mwambak eta zutitu egin zen dendara joateko soda ekartzera guretzat. Astia izango nuen etxea ondo aztertzeko. Ederki planeatuta. Kapa batzuk zeuden horiatik zintzilik.

- Kapa horietan armak zeudek ezkutatuta - xuxurlatu zidan Madoak.

- Aaah! - begiratu nion aho bete hezur.
- Ez jolastu Mwambarekin. Harrizkoa duk benetan.
- Zertarako dituk ba arma horiek- itaundu nion.
- "Lanerako"... gizarajo galanta haiz hi, Isa!

Ez zidan grazia izpirik egin lagunak "gizarajo" deitu izanak. Isildu egin nintzen, hala ere. Akorduan dut Madoarekin borrokan egiten nuela eskolan. Ez nuen errenditzen indarrez. Nahiago nuen ukabilkada edo ostiko bat eman eta hanka egin. Ez ninduen sekula harrapatzen korrika. Baina borrokaren ostean berriro adiskidetzen ginen. Madoa ukabilez jotzeko gogo bizia sentitu nuen Mwambaren etxean. Gauza bitxi batez ohartu nintzen mahai gaineko nortasun-agirietan. Denek zuten Rock Mwambaren argakia. Izenak ziren bestelakoak. Gaur egun ere gogoan ditut haietako izen batzuk: Gideon Obiero, John Kamau, Mwachofi Mwandawiro, Katana Karisa eta David Korir.

Amorrua irentsirik galdetu nion Madoari:

- Zertarako dituk horiek nortasun-agiri guztiak?
- Polizia txuliatzeko- esan zuen Madoak.

Ez nuen ulertu zer adierazi nahi zuen "polizia txuliatzeko" esaldiak. Baina esplikatu aurretik Mwamba itzuli zen etxera, bi soda zekartzala eskuan. Edaten hasi ginen, bihotza bularretik irten aginean nuen bitartean.

- Mwamba, bidaliko gaituzu Amerikara? - galdetu zion Madoak itxaropentsu.

- Ez izan kezkarik txikienik ere- erantzun zuen Mwambak - nahi duzuen tokira bidaliko zaituztet. Hobe ez nahastea eta lanari lotzea.

Jakinnahia neukan zer lan klase ote zen, baina ez nintzen ausartu galdetzen.

Mwambarenean bi egun eman ondoren, ondo ulertu ez nuen gai bat aipatu zuen gaua iritsi zenean.

- Gaur gauez egingo diagu lana Buruburun- bota zuen Mwambak betaurrekoak erantzi eta Madoari begira:

- Nirekin etorriko haiz ala nekatuta hago?- Mwambak Madoari.

- Nahiko deskantsatu dut; elkarrekin joango gara-erantzun zion Madoak.

- Eta hire lagun horrek zer egin behar dik? - galdetu zuen Mwambak mehatxuzko begi gorriak niri zuzenduta.

- Isa oraindik gizarajoa da; ez daki "lana" egiten- Madoak buruari alde batera eta bestera eraginez.

Lotsa eman zidan gizarajo deitu izanak, baina ezin nuen ezer esan, ez egin. Gaur egun ere ez zait gustatzen inork gizarajo deitzea, nahiz eta hala izan. Madoak eta Mwambak horman zintzilik zeuden kapak jantzi zituzten. Armak gordetzen ei zituzten kapak.

Utzi egin behar nindutela xuxurlatu zuten, ez nekielako zer zen "lana".

Logura banintzen bigarren gelako bere ohea erabil nezakeela esan zidan Madoak. Laster bueltatuko zirela. Gero, irten egin ziren. Azkar paratu nintzen lotan. Amerikarekin hasi nintzen ametsetan berriro...

Ameriketako presidentea nintzen. Jendeak txalotu egiten ninduen auto ikusgarri batean nindoala New Yorkeko kaleetan zehar. Zuria zen nire txoferra. Jendea agurtzen nuen auto barruan zutik jarrita. Estadio handi batera sartu nintzen. Jendea leherzorian zegoen, txoratzen hasita ni ikustean.

Ongi etorria eman eta hitzaldiarekin hasi nintzen: "Amerikar maiteok, badakizue luxuzko herria dela gurea. Ez dago pobreziarik. Ez dago hozkailurik ez duen herritarrik. Ez dago autorik ez duenik. Ez dago hegazkinik ez duenik. Ez dago maisuen zartakorik jasaten duenik...Jakituriaz diotsuet ametsa iruzurraren semea dela. Baina Ameriketako egoera ez da ametsa, errealitatea baizik.

## 5. kapitulua

Brastakoan moztu zen nire ametsa. Bukatu zen loa. Berbotsa zetorkidan alboko gelatik.

- Hartu nortasun-agiri horiek!- zioen emakumezko baten ahotsak- Arakatu kapa horiek!.

Gizonezko baten ahotsa ere entzun nuen:

- Hauek dira kenyarrok zapuzten gaituzten alprojakumeak!.

Pixkanaka jaiki nintzen beldurrak airean eta aldameneko gela arakatzeari ekin nion ateko zirriztutik. Rock Mwamba ikusi nuen. Eskuak lotuta zituen eta odola zerion burutik behera. Madoa ere han zen. Eskuak lotuak zizkion gizonezko polizia jirafa bezain kankailuak.

Guztira bost polizia kontatu nituen. Guztiek zeramatzen armak eskuan. Dardakeoa neukan. Arrapaladan ezkutatu nintzen ohepean. Gauza latzak jazo ziren lotan nengoela. Bihotza saltaka neukan bularrean, lehertzeko puntuan. Poliziak gelara sartu zirela sentitu nuen. Argia piztu zuten. Den-dena ari ziren miatzen. Ohea mugitu eta hantxe aurkitu ninduten.

- Amaaa! Amaaa!- oihuka nik.

- Zer egiten duzu hor behean?- emakumezko poliziak.

Hankatik oratu, tiratu eta albo batera jaurti ninduen paperezkoa banintz legez. Zergatik nengoen ohepean jakitea zen haren kezka nagusia.

- E! Begira nolako armak dauden hemen- polizia batek.

Aspaldian ibili gaituk hire bila Okutoyi, baina oraingoan majo harrapatu haugu! - beste polizia batek orroaka.

Behegainetik zutitu nintzen polizia batek eskutik helduta.

Hain indartsu oratu ninduen, uste nuen eskua hautsiko zidala. Errifleak, pistolak, balak, Mwambaren nortasun-agiri faltsuak eta bestelakoak batu eta poltsa batean sartu zituzten. Gero, hirurok atera gintuzten, hau da, ni, Madoa eta Mwamba. Indarrez sartu gintuzten Land Rover motako ibilgailu batean eta Buruburuko komisariara eraman. Mwamba espetxeratu zuten aurrena. Mila galdera egin zizkiguten Madoari eta bioi. Gero, espetxera gu ere. Orduan esplikatu zidan Madoak euren esperientzia. Mwambarekin joana zela "lana" egitera, Buruburuko etxe batean lapurtzera, alegia. Baina polizia hurbil zegoela eta atxilotu egin zituztela. Mwambak aurre egin ziela poliziei. Hauek buruan kolpatu zutela zauritu arte. Horregatik zegoela odoletan.

Goizean, indaba-zakuak bezala sartu gintuzten Land Roverrean epaitegira eroateko. Zorrotz zainduta gindoazen. Epaitegiaren sarreran adineko gizon baten irudia zegoen, aulkian eserita, makulua eskuan zuela.

Ez dakit Madoak nondik atera zituen indarrak irudiaren gaineko zehaztasunak emateko niri.

- Jomo Kenyattaren estatua duk, Kenyako lehenengo presidentearena.

- Hago isilik, lapur zikin hori!- poliziak Madoari kaskarrekoa emanda.

Kenyattarengan pentsatzen hasi nintzen. Gizon ospetsua behar zuen. Ameriketako presidente nintzeneko ametsa etorri zitzaidan burura. Nahiago ametsa izan ez balitz. Hobe presidentea bera banintz. Ameriketakoa ezean Kenyakoa, eta ez hemen, epaitegian preso. Nahiko nuke nik ere nire estatua paratuko balute, Kenyattarena bezala.

Epaitegia jendez gainezka zegoen, goragalea eragiteko moduan: akusatuak, lekukoak, salaketa-egileak, abokatuak, kazetariak... Epailea azaldu zenean, denok zutitzeko agindu zigun idazkariak. Eseri egin ginen, epailea eseri zenean. Emakume txikia zen epailea, begikune ilunekoa. Madoak esplikatuta nekien epaileak edo idazkariak deitzen dizunean "andrea edo jauna" erantzunda jarri behar zarela zutik. Berehala hasi zen idazkaria salatuei deitzen. Banan-banan "bai jauna" esan eta zutik jartzen ziren auzitegian. Ondoren, karguak irakurri edo epaia ematen zuen epaileak.

Ez nekien zein delitu leporatuko zidaten. Kezkatuta nengoen urte askotako kartzela-zigorra jasan

nezakeelako. Isil-isilik zeuden Madoa eta Mwamba. Ez zirudien kezkatuta zeudenik.

Halako batean idazkariak:

- Zablon Okutoyi!

- Bai, jauna.

Arraro egin zitzaidan Mwambari horrela deitzen entzutea eta obeditzen zuela ikustea. Baina haren benetako izena Zablon Okutoyi al zen?

- Zablon Okutoyi zara, Rock Mwamba ezizenez ezaguna?- jarraitu zuen idazkariak- lau delitu leporatzen zaizkizu. Aurrena, hamazortzi arma, berrogei bala eta hamar nortasun-agiri faltsu edukitzea legez kanpo. Bigarrena, Buruburuko etxe batean indarrez lapurtzen saiatzea. Hirugarrena, iazko urritik aurtengo ekainera bitartean zazpi ume bahituta edukitzea eta hiltzea. Laugarrena, iazko irailean Kamitiko presondegitik alde egin izana biziarteko kartzela-zigorra betetzen ari zinela.

- Leporatutako karguak onartzen ala ukatzen zituen galdetu zion idazkariak. Rock Mwambak edota Zablon Okutoyik eskua luzatu zuen:

- Epaile andrea, mutiko horiek libre uzteko eskatzen dizut, ez dutelako ulertzen gertatzen ari dena.

- Ez zara inor epaileari zer egin behar duen irakasteko. Adierazi karguak onartzen ala ukatzen dituzun.

- Ukatu egiten ditut.

- Espetxera eramango zaituzte harik eta kasua berriro aztertu arte bi aste barru- agindu zuen epaileak.

Namasake Madoari deitu zion ondoren idazkariak. Bi kargu leporatu zizkion: indarrez lapurtzen saiatzea eta gaizkile arriskutsuaren konplizea izatea. Gero, galdera:

- Onartu ala ukatu egiten dituzu karguak?

- Onartu egiten ditut- erantzun zuen Madoak.

- *Una malilio*<sup>6</sup> (Negarrez al zaude?)- galdetu zuen idazkariak ondo ulertu ez nion swahiliz.

Nik banekien zer zen *kilio* hitza, baina ez *malilio*. Epaitegi-tako hizkera xelebrea da, horratio. Horrelako hitzak sartuko banitu eskolako idazlanetan, hazelako zartakoa emango lidakeen maisuak!

Barkamen eske hasi zen Madoa:

- Epaile andrea, ikaslea naiz ni eta amari laguntzen diot fin lanean aita hil zenez geroztik.

- Baldintzapeko askatasuneko ofizialaren txostena jasotzen dudanean jakinaraziko dut neure erabakia.

Azkenik, idazkariak nire espedientea hartuta:

---

<sup>6</sup> "*Malilio*" hitz arrunta da, kalekoa. Hitz jasoa edo formala "*kilio*" da.



- Isaya Yano.
- Bai- obeditu eta zutundu egin nintzen atoa.
- Bai, jauna esan behar da!- zakar idazkariak.
- Bai, jauna.

- Zu Isaya Yano zara. Aurtengo azaroaren 2an gaizkile arriskutsu baten konplize jardun izana leporatzen zaizu. Aitortu ala ukatu egiten dituzu karguak?

Isilik geratu nintzen. Bihotza kuzkurtuta neukan beldurrez eta izerdia zeridan alde guztietatik.

- Onartu ala ukatu egiten dituzu karguak?- galdetu zuen epaileak ozen.

- Madoak engainatu egin ninduen, Ameriketara bidaliko gintuen lagun bat zuela esanda. Berak ekarri nau Nairobira, bere lagunarengana.

Irribarrea atera zitzaion epaileari. Barre txikiak egin zituzten haren inguruan zeuden guztiek.

- Halandaze, onartu egiten dituzu delituak?- itaundu zuen epaileak.

- Barkamena eskatzen dut epaile andrea.

- *Una malilio?* (Negarrez al zaude?) - galdetu zidan niri ere.

Ez zait bat ere gustatzen *malilio* berba. Gaur egun ere uste dut ez dela swahili garbia. Hobe galdetu balidate zergatik nahi nuen epailearen errukia. Edozelan ere, negar batean nengo.

- Mutiko, ez dugu negarrik nahi!- agindu zuen epaileak.

Isiltzen ahalegindu nintzen. Bien bitartean begietako malkoak xukatu nituen. Madoak negarrik ez egiteko esan zidala gogoratuta.

- Epaile andrea, barkamena eskatzen dut Madoak engainatu ninduelako. Eskolatik eta etxetik alde eginarazi zidan. Ameriketara joango ginela agindu zidan, baina epaitegira ekarri nau.

Epaileak irribarre egin zuen berriz eta jarraitzeko agindu zidan.

Une batez isildu eta:

- Eskolara itzuli nahi dut estudioak amaitzera. Handia naizenean, parlamentuan, Cheraganiko parlamentariaren aulkia bete nahiko nuke. Errespetuko gizona izan gura dut eta estatua egin diezadatela horko kanpoko Kenyatta presidenteari bezala.

- Ez duzu Ameriketara joan nahi hortaz?- galdetu zidan epaileak.

- Ez, ez dut nahi.

Baldintzapeko askatasunaz arduratzen den ofizialaren ikerketari buruzko txostena jaso ondoren plazaratuko zuela erabakia jakinarazi zuen epaileak.

Nire lagun Madoa legez, umeentzako presondegira bidaliko ninduela aste birako, Lower Kabetera. Mwamba Kamitiko kartzelan zegoen. Sano latza zen presondegiko bizimodua. Bi aste haiek bi urte begitandu zitzaizkidan. Espetxe barruan Madoarekin topo egiten nuen bakoitzean, saminduta botatzen nion “Hau al duk hik agindutako Amerika?”. Begirada zorrotza botatzen zidan, txintik ere esan gabe. Baldintzapeko askatasuneko ofiziala urreratu zitzaigun gure bizitzaz, familiaz eta eskolaz galdetzeko. Zelan sartu ginen delinkuentzian ere itaundu zigun. Galdeketa amaituta, Kitale hiriko ofiziala gure gurasoak eta eskola bisitatzerako joango zela adierazi zigun, gure portaerari buruzko txostena egin eta epaileari bidaltzeko.

## 6. kapitulua

Aste biren buruan epaitegira eroan gintuzten berriro. Aho-zabalik geratu nintzen ama ikusi nuenean. Igeltsatuta zeukan oina. Ni harrapatu nahian erorita apurtuko zuen, nonbait. Atsekabea hartu nuen. Han zegoen Madoaren ama ere. Baina ez zegoen Rock Mwambaren arrastorik. Kartzelako ofizial batek azaldu zion epaileari Zablon Okutoyi edo Rock Mwamba Kamitiko kartzelan izan zela. Kartzelazainari arma kentzen saiatu zela handik ihes egiteko berriro.

- Hortaz, non da Okutoyi jauna?- galdetu zuen epaileak.

- Kartzelazainak tirokatu eta hil egin zuen.

Zur eta lur utzi ninduen berriak. Madoari begiratu nion. Gutxi falta zuen negarri emateko.

Baldintzapeko askatasuneko ofizialak nire txostena eman zion epaileari. Isilean irakurtzeri ekin zion. Ni libre uzteko agindua eman zuen. Madoaren txostena, ostera, ez zen ona. Hiru urteko kartzela-zigorra jarri zion umeentzako Shikusako presondegian, Kakamegako barrutian. Epailearen erabakia aditzean negarretan urtzen hasi zen Madoa. Polizia batek eroan zuen. Haren ama ere negarrez zegoen. Madoaren ama aretoaren atzealderantz abiatu zen bere semea agurtzera eta erosia zion ogi lehorra ematera.

Epaitegitik irtetea amari jarraitu nintzaion atzetik. Makuluarekin zebilen. Ametsetan nengoela iruditu zitzaidan. Nairobiko autobus-geltoki nagusira iritsi ginen eta autobusean sartu Cheranganirako bidea egiteko. Madoaren ama sartu zen geroxeago.

- Sentitzen dut, andrea - esan zion nire amak.

- Zer esango dizut – erantzun zion Madoaren amak – esaten nion nik ez ibiltzeko jende makurrarekin. Baina hark berea egin zuen. Amari ikasi ez dionak munduari ikasi behar.

Ondo gogoan ditut Madoaren amaren hitz haiek. Gaur bertan esan balitu bezalaxe.